

**DONOSTIAKO
EUSKARAREN
GIDA**





Gida honetan aurkituko dituzu Donostian haur eta gazteei euskaraz eskaintzen zaizkien egitasmo eta zerbitzu ezberdinak. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea dute helburu.

“Ikasleen ikaskuntza prozesuaren %15era ez da iristen eskolan pasatzen duten denbora beraz, eskolaz kanpo egiten dituzten harremanak eta jarduerak oso garrantzitsuak dira haien ikaskuntza eta hezte prozesuan”

“Euskaraz ikasi eta jolastea, hizkuntzari arnas ematea da.”

NON IKASI ETA PRAKTIKATU EUSKARA?

Errefortzu akademikoa

Mentoretza

Kulturartekotasuna

Aisialdia euskaraz

HAURRALDE

- **Helbidea:** Kolon Pasealekua, 50, 20002
- **Telefonoa:** 943 32 71 62
- **Email-a:** ong@haurraldefundazioa.org
- **Webgunea:** <https://haurraldefundazioa.org/>

AUKERA SUSPERTZEN

Arrakala digitalari aurre egiteko programa.

ZER DA? Jarraipen akademikoa eta gurasotasun gaitasunak landu

HARTZAILEAK? LH eta DBH-ko ikasleak

SOS ARRAZAKERIA

- **Helbidea:** Mandasko Dukearen
Pasealekua 36-38, 20012
- **Telefonoa:** 943 32 18 11
- **Email-a:** mugak@mugak.org
- **Webgunea:** <http://www.mugak.eu/>

URRETXINDORRA

Mentoretza egitasmoa.

ZER DA? Ikasteko aukera paregabea da, bai unibertsitateko ikasleentzat, bai umeentzat, esperientzia berriak bizitzekoa, gaitasunak eta pertsonen arteko harreman modu berriak garatzekoa. Mentoreek nahiz umeek eta haien senideek proiektuan borondatez hartzen dute parte.

HARTZAILEAK? Etorkin jatorriko 10 eta 14 urte bitarteko umeentzat eta goi milako edo unibertsitateko ikasleak.

ONGI ETORRI ESKOLARA

- **Helbidea:**
- **Telefonoa:** 688684481- 651990454
- **Email-a:** elkarrekin.kooptxiki@gmail.com
- **Webgunea:** <https://www.ongietorrieskolara.org/>

FAMILIA LAGUNA

**Familien kulturarteko harremanak
sustatzeko programa.**

ZER DA? Eskolan matrikulatzen diren beste herrialde batzuetako familia emigratuak, adin bereko seme-alabak dituzten familia euskaldun boluntarioekin harremanetan jartzen ditu eta besteak beste, familia etorri berriaren sare sozialak zabaltzea eta haiek euskarara hurbiltzea du helburu.

HARTZAILEA? Lehen hezkuntzako haurrak eta haien familiak.

HAZI ETA IKASI

- **Helbidea:** Antso Jakituna Hiribidea, 24, 20010
- **Telefonoa:** 680 88 40 49
- **Email-a:** info@hazietaikasi.org
- **Webgunea:** <http://hazietaikasi.org/contacto/>

HAZI ETA IKASI

Eskola laguntza solidarioko egitasmoa.

ZER DA? Boluntario talde bat da, baliabide urriak dauzkaten familien seme-alabei eskola-jarraipenean sostengua ematen dietena.

HARTZAILEAK? LH1-etik DBH 2 bitarteko ikasleak.

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

- **Helbidea:** Konstituzio Enparantza, 2, 20003
- **Telefonoa:** 943 48 37 50
- **Email-a:** udala_euskara@donostia.eus
- **Webgunea:** <http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/hasiera/lang/eu>

PARKETARRAK

Parkean euskaraz.

ZER DA? Hurrek bere aisialdian euskara gehiago erabiltzea da egitasmoaren helburua. Hiriko parke eta jolaslekuetan aurrera eramaten da. Euskaraz jolastea da asmoa, haurren artean edota gurasoekin ari direnean.

HARTZAILEAK? 3-5 urte eta 6-9 urte bitarteko haurrak eta haien familiak.

OPORRETAN EUSKARAZ

Udaleku irekiak.

ZER DA? Euskararen erabilera sustatzea helburu duten udaleku irekiak uztailean.

HARTZAILEAK? 5 eta 11 urte bitarteko haurrak.

GU ERE BERTSOTAN

ZER DA? Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak ahozotasuna eta bertsolaritza sustatzeko garatzen duen programa da. Bertsolariak ikastetxeetara joaten dira eta hurrekin batera bertso gintza lantzen dute.

HARTZAILEAK? Lehen hezkuntzako ikastetxeak.

HAURRAK BETI JOLASEAN

ZER DA? Euskararen erabilera sustatzeko aisialdiko jarduera bat da. Haurren artean egiten da, eskolaz kanpo, ikastetxeetan, bazkaldu ondoren edo eskola amaitzean arratsaldean.

HARTZAILEAK? HH4-DBH4 bitarteko ikasleak.

UDALEKO GAZTERIA SAILA

- **Helbidea:** Agirre Miramon kalea, 4, 20002
- **Telefonoa:** 943 48 19 09
- **Email-a:**
- **Webgunea:** <https://www.donostia.eus/taxo.nsf/fwNweb?ReadForm&idioma=eus&id=a337696&doc=Area>

HAURGUNEA

ZER DA? 0-5 urte bitarteko haur eta gurasoentzako euskarazko gunea.

HAURTXOKOAK

ZER DA? Aisialdia baliatuz haurrak herritar gisa prestatzea jomuga duen zerbitzu publikoa da. Auzoka sailkatuta daude eta hainbat ekintza antolatzen dira bertan.

HARTZAILEAK? 5 eta 11 urte bitarteko haurrak

GAZTELEKUAK

ZER DA? Gazteek haien aisialdiaz beste modu batera gozatzeko udalak eskaintzen dituen guneak dira. Auzoka sailkatuta daude eta hainbat ekintza antolatzen dira bertan.

HARTZAILEAK? 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoak

FAMILIAREKIN JOLASEAN

ZER DA? Programa honek haur eta gurasoek elkarrekin jolastu eta arratsalde dibertigarriak pasatzeko helburua du. Astero guraso edota senitartekoek Haurtxokora jolastera hurbiltzeko aukera da “Familiarekin jolasean”.

HARTZAILEAK? 5 eta 11 urte bitarteko haurrak



bagera
Donostiako
Euskaltzaleen Elkartea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Herri Partaidetza
Participación Ciudadana